

## **EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

## **KONTROL MOZIOA**

### **2020ko festen egoerari buruzkoa**

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko ekainaren 15ean Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Gure hiriak kultur bizitza zabala du eta herritar gehienok, modu batean edo bestean, kulturen parte hartu edota berarekin gozaten dugu. Asko dira auzoetako jaiak Donostian, eta hiriaren jai nagusiak ere donostiarren eta elkarrean protagonismo eta parte hartzearekin antolatzen dira.

Maiatzaren 15ean, Covid19ak eragindako alerta egoeran ginela, Donostiako alkateak hiriko udako jai nagusiak bertan behera uzteko erabakia hartu zuen. Ildo berean, maiatzaren 19an, Donostia Festak erakundeak gutun bidez jakinarazi zien festa batzordeei aurtengo udan auzoetako jaiak bertan behera uzteko erabakia. Erabaki horiek hartzeko orduan, ordea, Udal Gobernuak ez zuen ezer partekatu jaien antolatzaile eta parte hartzaile nagusiak diren eragileekin. Aldebakarrez jardun zuen.

Erabaki horien aurretik, festa eragileak azken unera arte aritu ziren Udalak ezarritako baldintzak betetzen, tramiteak egiten, Udalak berak horrela eskatuta. Bazekiten jaiak ez zirela ohikoak izango, sumatzen zuten ezingo zirela ohiko jarduerak ohiz bezala egin, baina bazuten urte bereziko jai bereziak antolatzeko esperantza txiki bat. Hain zuzen ere, Covid19ak eragindako krisiaren lehen unetik, Donostiako EH Bilduren Udal taldeak Udal Gobernuari eskatu zion kulturaren esparruan aurreikusten genuen egoera arazotsuari aurrea hartzeko, eta harremanetan jartzeko hiriko kultur eragileekin. Horregatik ere, apirilaren 24an, kultur bizitza berrartzeko eta indartzeko proposamen bat erregistratu zuen EH Bilduk. Ekintza planak bildutako neurrien artean, auzoetako festak birpentsatzea proposatu genuen:

*“Auzoetako festak berrartzea. Senide eta lagunak kaltetu, eta etxeetan isolatuarazi gaituen egoera latz honek inoiz baino beharrezkoagoa egiten du auzotarron arteko harremanak indartzeko, bizipozari eusteko, komunitatea egiteko. Uda sasoia auzoetako jaien garaia izaten da gure hirian, eta aurreikusita zeuden ekimen asko bere horretan egin ezingo diren arren, horiek berformulatzeko moduak proposatu eta bultzatu behar dira. Festa batzordeei lagundu behar zaie eginkizun horretan, horretarako prest baleude”.*

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Geroztik, Donostiako Udal Gobernuak harreman bide bat abiatu du Herrerako, Karmenetako eta Zipotz jaietako batzordeekin, baita Aste Nagusiko Piratekin ere. Ekainaren 15ean, festa eragileekin batzartzeko eta erabakiak adosteko asmorik baduen galdetu zion EH Bilduk Udal Gobernuari. Kulturako zinegotzi ordezkariaren erantzunek erakutsi zuten Udal Gobernuak proaktiboki baino erreaktiboki ari zaiola erantzuten festan eragileen eskeari; irtenbideekin baino, traba eta eragozpenekin.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

**KONTROL MOZIOA:**

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jarrera erraztailea erakusteko, eta udako jaien antolatzaile eta parte hartzaile nagusiak diren eragileekin adostu ditzala auzoetako festak eta gainerako agerraldiak birpentsatzeko aukerak, betiere osasun agintariek aldiro ezarritako mugen baldintzapenak kontuan izanik.

Donostia, 2020ko ekainaren 19an

Zigor Etxeburua Urbizu  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia